

UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoak

Aurkibidea

1. Erakunde izenak	3
1.1. Unibertsitatearen izena	3
1.2. Ikastegiaren, sailen, jakintza arloen eta institutuen izenak	3
1.3. Unibertsitateko organoen izenak	4
1.4. ehualumni zerbitzuren izena: emanda etorri zaizkigun arauak	4
1.5. Unibertsitateko lanpostuen zerrendako izenak	5
1.6. Unibertsitateko karguen izenak	6
1.7. "Coordinador de sección" eta "Vicedecano coordinador de sección" eta izen horietatik sortutako egitura konplexuak	6
2. Beste erakunde batzuen izenak	7
2.1. Unibertsitateak	7
2.1.1. Espainiakoak	7
2.1.2. Atzerrikoak	8
2.1. Bestelako erakundeak	8
3. Unibertsitateko ikasketekin lotutako izenak	8
3.1. Graduaren izenak	8
3.2. Masterren izenak	9
3.3. Irakasgaien izenak	10
3.4. Jardunaldi, hitzaldi, ikastaro, biltzar eta liburuen izenak	10
4. Gobernu Kontseiluko dokumentuen egitura	11
4.1. Erabaki proposamenak	11
4.1. Erabakiak	12
5. Ortotipografia irizpideak	12
5.1. Siglen idazkera	12
5.1.1 Zifraz amaitutako siglak	13
(AIM, 2016/01/14):	13
5.1.2 Letra xehez amaitutako siglak	13
(AIM, 2016/01/14):	13
5.2. Erdaretako diakritikoak	13
5.3. Zenbakien idazkera	13
5.4. Zerrenden puntuazioa	14
5.4. Dokumentuen hitzez hitzeko aipamenak	15
5.4.1. Euskaratuta ez dauden dokumentuen hitzez hitzeko aipamenak	15
5.4.2. Euskaratuta dauden dokumentuen hitzez hitzeko aipamenak	15
5.5. Hitz elkartuei buruzko zenbait ohar	16
5.5.1. Marratxoaren erabilera	16
5.5.2. "a" itsatsia	16
5.6. Ohiko ortografia eta deklinabide zalantzak	16

6. Wordfasten errendimendua hobetzeko irizpideak 17

UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoak

1. Erakunde izenak

OHARRA: unibertsitateko egitura, organo edo bestelakoen izenak aldatzen direnean, izen berria erabakiko dugu euskaraz, glosarioan sartu, eta zaharra ezabatuko dugu glosariotik. Erabaki hau 2013an hartu genuen eta 2014ko urriaren 1ean berretsi. (AIM, 2014/10/01)

1.1. Unibertsitatearen izena

Unibertsitatearen izena aipatzean (cf [Erakunde Irudiaren Eskuliburua– 03 KOMUNIKAZIOA– 04 Idazteko arauak –56. orr.](#)):

- **Izen osoa aipatzen** denean:

- dokumentuan lehen aldiz agertzean, biak ipini behar dira:
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
- Dokumentu berean hurrengoetan aipatzean, dokumentuaren hizkuntzako aldakia erabili behar da: gaztelaniaz bada, Universidad del País Vasco eta euskaraz bada, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Barraren ezker eta eskuinean ez da hutsunerik utzi behar

- **Siglak idazteko:**

- osorik idatzi behar da beti, eta barra etzanarekin:
- UPV/EHU

Ez: EHU*
UPV-EHU*

1.2. Ikastegien, sailen, jakintza arloen eta institutuen izenak

Unibertsitateko ikastegien, sailen, jakintza arloen eta institutuen izenak aipatzean 2004ko otsailaren 3an Gobernu Kontseiluak onartutako izendegia erabiliko dugu:

http://www.ehu.es/azpidazki/PDFak/EHUko_zendegia.pdf

Aipatu behar dugun izena izendegi horretan jasota ez badago, ikertu egin beharko da "dokumentu fundazionalen" baten jasota dagoen ala ez. Horietako batean jasota badago eta Gobernu Kontseiluak onartuta badago, izen hori erabiliko dugu.

Halakorik aurkitu ezean, izena berria dela suposatuko dugu eta guztion artean adostutako izen bat emango diogu. Bestelako prozedurarik egon ezean, Gobernu Kontseiluak guk emandako izena onartzen badu, ofizialtzat joko dugu eta aurrerantzean hori erabiliko dugu beti.

1.3. Unibertsitateko organoen izenak

Unibertsitateko organoen izenak aipatzeko, Gobernu Kontseiluak 2011ko otsailaren 15ean onartutako eta 2011ko otsailaren 25ean EHAAn argitaratutako [Estatutuetan](#) agertzen diren izenak erabiliko ditugu .

Estatutuetan jasota ez daudenetarako, Gobernu Kontseiluak onartutako azken organigramako izenak erabiliko ditugu, hain zuzen ere, [2013ko otsailaren 14ko erabakian](#) agertzen den organigramakoak.

"en estos Estatutos..." eta antzekoak

Organoen eta arautegien izenak letra xehez idatziko ditugu erakusleekin, zenbakiekin edo posesiboekin daudenean edo plural generikoan daudenean.

Adb. "UPV/EHUko Estatutuak" baina "estatutu hauetan zehaztutako moduan".

"Fakultateko Batzarrak erabaki du" baina, "fakultateko batzar honek erabaki du".

"Campuseko Batzarrak erabaki du" baina "campuseko batzarrek erabakiko dute".

1.4. ehualumni zerbitzuren izena: emanda etorri zaizkigun arauak

(AIM, 2016/01/13)

1) Izena beti idatzi behar da letra tipo konbinazio horrekin, hau da, "**alumni**" lodian, eta "ehu", ez: ehualumni. Ez du esan nahi "ehu" beti biribilean idatzi behar denik, ze hitz osoa ager daiteke letra etzanean (ehualumni). Inportantea da **alumni** lodian doala BETI, eta ehu, berriz, ez.

2) "ehu" beti idatzi behar da horrela hitz horretan. Hau da, ez larriz (normalean siglek beharko luketen moduan) baizik eta xehez.

3) "ehualumni" beti idatzi behar da letra xehez hasita, nahiz eta esaldiaren edota paragrafoaren hasiera izan. Adibidez:

"ehualumni es un servicio creado para mantener vivo el vínculo entre las personas tituladas en la UPV/EHU y la propia institución".

"ehualumni zerbitzua sortu da UPV/EHUko ikasle ohien eta erakundearen arteko lotura bizirik gordetzeko".

4) Zerbitzuaren izena izateaz gain, izen horrekin ikasle ohiak ere izendatuko dira, hau da, pertsonak. Berez plurala izan arren latinez, forma bakarra erabiliko da bai singularrerako eta bai pluralerako: un ehualumni, dos ehualumni (ADI: inoiz ez dos *ehualumnis); ehualumni bat, bi ehualumni.

5) Azkenik (hau da gure zerbitzuak hartutako erabaki bakarra), ez dugu idatziko marrarik izenaren eta deklinabide atzizkiaren artean: "ehualumniko", "ehualumniri", "ehualumniekin".

[OHARRA: arazo ugari aurreikusten zaizkio izen honi:

-Izena ez da ahoskatzeko erraza, batez ere euskaraz deklinatzean (adibidez: "ehualumni*ei*").

-Oso litekeena da berehala "*ehualumni*S*" plural bikoitzak zabaltzen hastea.

-Hitz beraren barruan bi letra tipo erabili behar izatea berez deserosoa da tekleatzeko, eta itzultzaileontzat arazo gehigarri bat, kontuan hartuta nola aldrebesten dituen letra tipoak WFeK (memorian askotan ez da ondo gordeko). Bestalde, toki askotan ezin da biribila ez den tipografiarik erabili (e-mailetako gaiaren eremuan, Twitterren...)

-Nahasgarria eta arau arrunten kontrakoa izateaz gain, deserosoa da esaldiak letra xehez hasi beharra. Izan ere, normalean zuzentzaile ortografikoak zuzenduko du automatikoki eta letra larria jarri, eta atzera joan beharko gara eskuz zuzentzera (edo autozuzenketa arau bat idatzi Worden). Oso litekeena da izen honetarako ezarri duten estilo arau hau sekiula ez hedatzea, ez euskaraz ez erdaraz].

1.5. Unibertsitateko lanpostuen zerrendako izenak

Lanpostuen izenak idazterakoan, Gobernu Kontseiluak onartutako azken zerrendako izenak erabiliko ditugu ([2014-03-18ko EHAA](#); 1. aldaketa, lanpostu batzuk aldatu eta beste batzuk gehitzeko: [2014-11-](#)

[13ko EHAA](#); aldaketaren ondorengo hutsen zuzenketa: [2014-11-24ko EHAA](#)). Izen horiek glosarioan sartuta daude baina baten bat glosarioan ez badago edo desberdintasunen bat badago glosarioko izenen eta EHAako izenen artean, itzulpena entregatu orduko aztertu egin beharko da nondik datorren desberdintasun hori eta dagokionari jakinarazi, behar diren zuzenketa edo egokitzapenak egiteko.

1.6. Unibertsitateko karguen izenak

Karguen izenak aipatzerakoan, karguen izendapenetan jasotako izenak erabiliko ditugu. Izen horiek glosarioan sartuta daude.

Guztiak ere, letra xehez idatziko ditugu (aita santua eta arartekoa erakoak barne) (AIM proposamena 2010/05/26; cf *Berriaren Estilo Liburua*).

“Zuzendari” eta “buru” + -ko (Estatutuak, AIM, 2011/08/22)

“El Aldezle”, euskaraz letra xehez idatziko dugu: **aldezlea**. (Estatutuak, AIM, 2011/08/22)

Gaztelaniaz, **genero** kontua dela eta, *rectorado*, *vice-rectorado*, *secretaría general*... eta holako kolektiboak erabiltzen diren arren, euskaraz ez daukagu horren premiarik, eta zuzenena da *errektorea*, *errektoreordea*, *idazkari nagusia*.... erabiltzea. Ez dugu zertan pare-parean jokatu.

1.7 “Coordinador de sección” eta “Vicedecano coordinador de sección” eta izen horietatik sortutako egitura konplexuak

Abiapuntua izanik bi termino hauentzat adostutako euskarazko ordainak (ikus Glosarioa):

- ES Coordinador de sección: EU ataleko koordinatzaile
- ES Vicedecano coordinador de sección: EU atalaren koordinazioko dekanorde

Honela erabaki dugu ematea “ikastegia” eta “atala” barruan dauzkaten beste egitura konplexu hauek, genitibo atzizkien alternantziaren irizpidea aplikatuz eufonia arrazoiengatik:

- IkastegiaREN + ataleKO koordinatzaile

Ad.:

Bilboko Ingeniaritza Eskolaren Meatzeen eta Herri Lanen
Ataleko koordinatzaile
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen Gurutzetako
Ataleko koordinatzaile

- IkastegiKO + atalaREN koordinazioko dekanorde

Ad.:

Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Irakasle Ikasketen Atalaren
koordinazioko dekanorde
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Eibarko Atalaren
koordinazioko dekanorde

2. Beste erakunde batzuen izenak

2.1. Unibertsitateak

2.1.1. Espainiakoak

Hona hemen hainbat irizpide, unibertsitateen izenak gaztelaniaz daudenean itzultzeko:

1) Leku baten izena adierazten denean ez dago arazorik:

Universidad de Salamanca = Salamancako Unibertsitatea.

2) Izena deskriptiboa denean, berriz, ahal baldin bada saiatu izenak esan nahi duena euskaraz ematen:

Universidad Pontificia de Comillas = Comillasko Eliz Unibertsitatea

3) Pertsona izena denean zailagoa izaten da, ez baitago beti araututa izen historikoak etab. nola eman behar diren:

Universidad Sancho El Sabio = Antso Jakituna Unibertsitatea

Halakoetan, Euskaltzaindiak emandako zerrendetan ageri badira, hortik hartu; bestela, hiztegi entziklopedikoetara jo.

4) Leku izen batzuek azentu marka daukate. Aukerakoa da azentuarekin

edo azenturik gabe idaztea.

[Espainiako Unibertsitateen taula](#)

2.1.2. Atzerrikoak

Hona hemen hainbat irizpide, unibertsitateen izenak gaztelania ez den erdaran daudenean itzultzeko:

* Leku izenak direnean ez dago arazo handirik:

Université de Bordeaux = Bordeleko Unibertsitatea
University of Cambridge = Cambridge-ko Unibertsitatea

* Izena deskriptiboa denean edo pertsona izena denean, printzipioz ez genituzke itzuli beharko, UPV/EHUko lan hizkuntzak eta hizkuntza ofiziala euskara eta gaztelania baino ez direlako. Gainera, beti gerta daiteke gure inguruko inor gutxi ulertzen duen hizkuntzaren bateko izen bat agertzea, eta, beraz, ezin ematea izen horiek euskaraz.

2.1. Bestelako erakundeak

Bestelako erakundeen izenak aipatzean, erakundeek berek erabiltzen duten izena erabiliko dugu guk ere. Izen horiek zeintzuk diren jakiteko, erakundeen sorrera dokumentuetara, izendegietara edo webguneetara joko dugu.

3. Unibertsitateko ikasketekin lotutako izenak

3.1. Graduen izenak

Graduen izenak: oro har, "-ko" atzizkiaz deklinatuta emango ditugu

Adb:

Euskal Filologiako Gradua

Gradua lortu dutenei nola deitu:

Graduado en Filología Vasca: Euskal Filologiako graduduna

Salbuespena (SGM: 2010/11/30): Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzeari buruzko Gradua--> Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzean graduduna

*OHARRA: lehen Euskal Filologiako lizentziatura / Euskal Filologian lizentziaduna

Graduen zerrenda eguneratua glosarioan txertatuta dago. Glosariotik kanpo, [unibertsitateko webgunean](#) ere aurki daiteke. Desberdintasunik egonez gero, glosarioko zerrendak izango du lehentasuna baina itzulpena entregatu orduko aztertu egin beharko da nondik datorren desberdintasun hori eta akatsa zuzendu dagokion lekuan.

3.2. Masterren izenak

* izenburu moduan edo isolaturik agertzen direnean honela aipatuko ditugu:

Unibertsitateko masterra: X (deklinatu barik)

Adib.:

Unibertsitateko masterra: Banku Jarduerak eta Finantza Kuantitatiboak

*esaldi barruan denean,

a) kakotxa artean jarriko dugu gaia eta atzean "masterra" hitza:

Adib.:

Unibertsitateak hitzarmena egin du BBKrekin "Banku Jarduerak eta Finantza Kuantitatiboak" masterra elkarlanean emateko.

b) masterraren izena laburra denean eta deklinabide marka ipintzeko erraza denean aukera dago -ko atziki azkeneko, graduko izenekin egiten dugun bezala (kakotxik gabe, esaldi barruan izan arren):

Adb.: Euskal Filologiako masterra; Psikologiako masterra

c) Masterraren izenak bi puntu baditu, euskarazko izenean ez erabili bi puntu horiek, nahasgarria izan daitekeelako, eta horien orde puntua jarri:

Master en Economía: Instrumentos del Análisis Económico.

Masterra: Ekonomia. Ekonomiaren Analisisirako Tresnak.

*Berdin jokatuko dugu espezialista tituluekin. Unibertsitateko
Especialista: Ortopedia

Masterren zerrenda eguneratua glosarioan txertatuta dago. Glosariotik kanpo, [unibertsitateko webgunean](#) ere aurki daiteke. Desberdintasunik egonez gero, glosarioko zerrendak izango du lehentasuna baina itzulpena entregatu orduko aztertu egin beharko da nondik datorren desberdintasun hori eta akatsa zuzendu dagokion lekuan.

3.3. Irakasgaien izenak

Irakasgaien izenak (2011/05/15, AIM, SGMk proposaturik)

Irakasgaien izenak emateko, glosarioan sartutako izenak erabiliko ditugu. Izen berriren bat eman behar bada, guztion artean adostuko dugu eta glosarioan sartuko dugu, gero guztiok izen hori erabiltzeko.

Irakasgaien izenak noiz itzuli:

- a) Gaztelaniazko testuan soilik gaztelaniaz idatzitako irakasgaiak daudenean euskarazkoan guztiak euskaratuko ditugu.
- b) Nahastuta agertzen direnean, nahastuta utziko ditugu euskarazkoan ere.
- c) Gaztelaniazko zutabeetan soilik euskaraz idatzitako irakasgaiak badaude, euskarazkoan ere euskaraz utzi.
- d) Euskaraz irakasten duten unibertsitateko irakasgaien kasuan hemengo irakasgaiekin bezala jokatuko dugu.
- e) Eta EAE, Nafarroa edo Iparraldekoak ez diren unibertsitateetakoak badira, erabili duten hizkuntzan utzi.

3.4. Jardunaldi, hitzaldi, ikastaro, biltzar eta liburuen izenak

Jardunaldi, hitzaldi, ikastaro, biltzar, liburuen izenak zelan eman
(Hitzuruni emandako erantzuna: 2009/10/22)

a) Hitzaldi, biltzar eta halakoen izenak eman diren jatorrizko hizkuntzan utziko ditugu; Euskal Herrian egina bada, ikertuko dugu ea euskarazko izenik ere eduki zuen eta hala izan bada, euskarazkoa emango dugu.

b) Liburuak: begiratuko dugu ea euskarazko itzulpenik dagoen, eta baldin badago, euskaraz aipatuko dugu. Bestela, jatorrizko hizkuntzan utziko dugu.

4. Gobernu Kontseiluko dokumentuen egitura

4.1. Erabaki proposamenak

“PROPUESTA DE ACUERDO...” EGITURA (IRU: 2010/10/28)

PROPUESTA DE ACUERDO DEL CONSEJO DE GOBIERNO DE LA UPV/EHU, POR LA QUE SE MODIFICA LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO DE PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR FUNCIONARIO Y CONTRATADO ADMINISTRATIVO

ERABAKI PROPOSAMENA, UPV/EHUko GOBERNU KONTSEILUAREN BILERARAKO: IRAKASLE ETA IKERTZAILE FUNTZIONARIO ETA ADMINISTRAZIO KONTRATUDUNEN LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEA

* Proposamena norena den adierazita badago, honela ipiniko dugu: **(AIM 2011/03/01)**

ERABAKI PROPOSAMENA, IKERKETAKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUko GOBERNU KONTSEILUAREN BILERARAKO: IRAKASLE ETA IKERTZAILE FUNTZIONARIO ETA ADMINISTRAZIO KONTRATUDUNEN LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEA

* Proposamenaren data adierazita badago, honela ipiniko dugu: **(AIM 2011/03/01)**

ERABAKI PROPOSAMENA, IKERKETAKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUko GOBERNU KONTSEILUAREN 2011ko MARTXOAREN 10eko BILERARAKO: IRAKASLE ETA IKERTZAILE FUNTZIONARIO ETA ADMINISTRAZIO KONTRATUDUNEN LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEA

* Gobernu Kontseiluaren aztergaien zerrendan ez dugu idatziko “Gobernu Kontseiluaren ... bilerarako” parte. **(IBG 2011/03/01)**

ERABAKI PROPOSAMENA, IKERKETAKO ERREKTOREORDEARENA: IRAKASLE ETA IKERTZAILE FUNTZIONARIO ETA ADMINISTRAZIO KONTRATUDUNEN LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEA

Egitura hauek letra larriz idatzita egoten dira. Horregatik, siglak deklinaturik aipatzen direnean, deklinabide marka eta siglaren testua ondo bereiz dadin, deklinabide marka letra xehez idatziko dugu. Berdin jokatuko dugu zenbakiren bat agertzen denean (ikus atal honetako laugarren adibidea).

4.1. Erabakiak

Erabakien goiburuaren egitura:

Erabakia, (data), (norena), (zertarako).

Adib.:

Erabakia, 2007ko abenduaren 28koa, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko plantillan administrazio laguntzaileen eskalako behin-behineko funtzionario bat izendatzeko dena (=izendatzekoa).

- Oso luzea denean erabakiaren gaia, "norenaren" ostean puntua jar daiteke eta helburua "Honen bidez.." hasten den esaldi batez adierazi.

Adib.:

Erabakia, 2009ko urriaren 23koa, Bizkaiko Campuseko Batzarreko Batzorde Iraunkorrarena. Honen bidez batzordeak ontzat ematen du Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak eta Getxolanek (Getxoko Udalaren Enplegu eta Ekonomia Garapenerako Bulegoak) lankidetz hitzarmena sinatzea, Leonardo da Vinci programako (2009ko deialdia) Epez IV proiektuan elkarlanean aritzeko.

5. Ortotipografia irizpideak

5.1. Siglen idazkera

Siglak deklinatzeko:

- Izen bereziak bezala deklinatzen dira, mugagabeen (lexikalizatuak izan ezik: CDa, NANA...).
- Ez dira marraz lotzen. Salbuespena: siglaren amaierako letra eta deklinabidearen hasierakoa bat bera direnean, marraz lotzen dira (BBK-k, RPR-ri)
- Siglaren irakurbidea nolakoa, deklinabidea halakoa: "be-be-ka-ren-tzat (BBKrentzat)" baina "be-ken-tzat (BECentzat)"

5.1.1 Zifraz amaitutako siglak

(AIM, 2016/01/14):

- Marrarik gabe idatziko ditugu sigla eta deklinabide markaren artean.
- Marrarik gabe siglako letra eta zenbakien artean.
- Mugagabeen deklinatuak

Adibidez: "G9 bildu da", "G9k erabaki du".

5.1.2 Letra xehez amaitutako siglak

(AIM, 2016/01/14):

Deklinabide atzizkiaren aurretik marra erabiliz:

Adibidez: MDe-k, MDe-ri

5.2. Erdaretako diakritikoak

Erdaretako diakritikoak (azentuak eta abar): EIMAk eta IZOk bezala, bi aukerak jotzen ditugu ontzat, baina normalean saiatuko gara jatorrizko eran ematen, azentu eta guzti: "Martínez jauna". "Patxi López". (Hitzuruneri emandako erantzuna: 2009/09/16).

5.3. Zenbakien idazkera

Zenbakien idazkera (AIM proposamena: 2010eko maiatza)

- Batetik hogeira letraz (hogei barne)
- 21etik aurrera zenbakiz
- Ahaleginduko gara esaldi hasieran zifrarik ez idazten
- Beti zenbakiz: datak (urteak eta egunak), magnitudeak, jendearen adina, artikulua eta kapituluak, zenbaki hamartarrak.

Ordinal negatiboak (AIM: 2010/08/10)

Adibidez, 0 solairuaren azpiko solairuak, hala nola: "Planta -1 del edificio central":

Euskaraz punturik gabe idatziko ditugu:

"Eraikin nagusiko -1 solairuan".

Gauza behera solairu horietan dauden ikasgelen zenbakiak:

"junto al aula -1.2"

"-1.2 ikasgelaren ondoan"

Ehuneko osteko tarte zatiezina (AIM: 2010/11/30): % ikurraren ostean sakatzea

5.4. Zerrenden puntuazioa

Zerrenden puntuazioa (AIM. Estatutuak, 2010/05/19)

Zerrenda bat daukagunean (bi puntu, aparte eta gero hainbat item bata bestearen azpian, bakoitzaren aurretik buleta, zifra edo letra dagoela) honela jotzeko dugu:

*Letra larriz hasita idatziko ditugu eta bukaeran puntua jarriko dugu.

Salbuespena: hitz bat edo biko itemak direnean, letra xehea ipiniko dugu hasieran eta ez dugu ezer jarriko bukaeran.

5.4. Dokumentuen hitzez hitzeko aipamenak

5.4.1. Euskaratuta ez dauden dokumentuen hitzez hitzeko aipamenak

Testua jatorrizko hizkuntzan utziko dugu, kakotxen artean, eta ez dugu inolako argibiderik edo azalpenik gehituko. (Euskara Zerbitzuko buruaren erabakia, AIMk hemen jaso 2014ko irailaren 15ean).

Adibidez:

El Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, por la que se establece la ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales, dispone con respecto al Trabajo de Fin de Grado (TFG) en su capítulo III, artículo 12, lo que sigue:

- punto 3: *"Estas enseñanzas concluirán con la elaboración y defensa de un trabajo de fin de Grado"*.

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak unibertsitateko ikasketa ofizialak antolatzeko era ezarri zuen; Gradu Amaierako Lanari dagokionez (GRAL), honako hau dio III. ataleko 12. artikuluan:

- "punto 3: Estas enseñanzas concluirán con la elaboración y defensa de un trabajo de fin de Grado".

5.4.2. Euskaratuta dauden dokumentuen hitzez hitzeko aipamenak (SGM, 2010/12/14)

Jatorrizko testua hitzez hitz kopiatzen badugu, kakotxen artean jarriko dugu testua. Estilo, terminologia edo tipografia aldaketak edo antzekoak sartu nahi izanez gero, kakotxik gabe idatziko dugu, parafraasi bat balitz bezala.

Oharra: (SGM, 2015/05/14)

2011ko urriaren 6an Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak hitzarmen bat sinatu zuten legeak BOEn euskaraz argitara zitezen ([2011/10/21eko BOE, 254 zk.](#)). Hitzarmen horren arabera, honako hauek euskaratzen dira: legeak, errege lege dekretuak eta legegintzako errege dekretuak, guztiak ere "I. Xedapen Orokorrak" ("I. Disposiciones Generales") atalekoak. Hitzarmen horretan ezarritakoa 2011ko azaroaren

16tik aurrera hasi zen aplikatzen eta egun horretatik aurrerako BOEn eskuragarri dago [euskarazko gehigarria](#), zeinetan euskaratuta baitauden "I. Xedapen Orokorrak" izeneko atalaren laburpena eta atal horretan egon daitezkeen legeak, errege lege dekretuak eta legegintzako errege dekretuak.

5.5. Hitz elkartuei buruzko zenbait ohar

5.5.1. Marratxoaren erabilera

Marrarik ez dugu erabiliko, ezpada Euskaltzaindiak derrigortutako kasuetan ([25. araua](#) – Hitz elkartuen osaera eta idazkera – II.2 atala). Halakoetan, letra larriz idatzi behar badira, hitz elkartuko bigarren osagaia letra xehez idatziko dugu.

Adib. "Behin-behineko Arautegia"

5.5.2. "a" itsatsia

Kultura, natura, hizkuntza: a itsasiarekin erabiliko ditugu hitz elkarteetan

Adb. hizkuntza eskakizuna; kultura programazioa;

5.6. Ohiko ortografia eta deklinabide zalantzak

Deszentralizatu: "sz" idatzi behar da (salbuespena da: Euskaltzaindia).
Estatutuak, AIM, 2011/08/22

"Zuzendari" eta "buru" + -ko (Estatutuak, AIM, 2011/08/22)

Adib. "saileko zuzendaria", "ikastegietako dekanok eta zuzendariak", "kontseiluko burua", "zerbitzuko burua".

ZERI atxikia (ez "ZERTARA atxikia")

Adib. "eskolari atxikitako irakasleak".

6. Wordfasten errendimendua hobetzeko irizpideak

Wordfast (AIM: 2011/01/12)

Datak, sinadurak eta zenbakiak EZ DITUGU memoriaren bidez itzuliko
(horrela ez dugu alferreko unitaterik sortuko). Adibidez:

“Leioa, 11 de enero de 2011”

“Primero.-”

“I.”

“IV.”

“Iñaki Goirizelaia”